



IÑISTORRA
BILTZARRA



Iñistorra Biltzarrak erabakia ezagutzera eman berri du

IKASTOLAKO IRAKASLE AITZINDARIAK **URNIETAR PRESTU 2017**

Uztailaren 12an egindako batzarrean hartu zuen erabakia Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak. Aurtengo *Urnietar prestuak* Egape Ikastola orain 50 urte sortuz gero ikastolaren egitasmoa aurrera ateratzen ahalegin berezia eta jarraitua urtetan egin duten irakasleak dira, 10 lagun denetara. Aintzat hartu behar da 1967. urtean Egape ikastola zela Urnietan eskolak euskaraz ematen zituen ikastetxe bakarra, herriko hainbat gurasoren ekimenez sortua, eta traba eta oztopo ugariaren gainetik, inolako laguntza ofizialik gabe, aurrera atera zena, guraso, herriko ekintzaile eta, bereziki, urte zail haietan eta ondorengoetan ikastolara lanera bildu ziren irakasleen ahaleginari esker.

Bada, aurten, urtetako lan isila egin duten irakasle horiek omendu nahi izan dituzte *Urnietar Prestu, 2017* sariaz. Talde horretan, ikastola martxan jarri zenean hasitako irakasleak daude, baita, gazteagoak, urte batzuk geroago sartu zirenak ikastolaren egitasmoan. Guztiok dute, ordea, elkarrekiko ezaugarri bat: ikastolan hasiz gero aparteko borondatea eta ahalegina azaldu dute urtetan Ikastolaren egitasmoak aurrera egin zezan, eta eredugarria izan da horien jokabidea: lehenengo urteetan dena egiteko zegoen; ikastolaren egitura eta finantzabideak sortu, irakasleak prestatu, ikasleekin landu beharreko material pedagogikoa sortu eta prestatu... Sortu diogu, bai, euskaraz ez baitzegoen inolako materialik eta beste ikastolekiko elkarlanean sortzen ez zena, bertan sortu behar baitzen.

Irakasle aitzindari hauek, ohiko bere lanaz gain beste gauza eta ekintza ugari egin behar izaten zuten, bizkarrez bizkar lan egin behar izan baitzuten ikastolako gurasoekin batera ikastolaren egitasmoa aurrera ateratzeko. Esate baterako, eskolaz kanpoko ekintza guztiak antolatzen zituzten lanorduz kanpo: ihauterietarako mozorroak zirela, San Sebastian eguneko prestakizunak... Eginkizunik nagusia, ordea, dirua biltzea zen, diru premi izugarria baitzuen ikastola hark: zozketak zirela, San Juan plazan jaietan antolatzen zen tonbola ederra, baserritarren laguntzaz antolatzen ziren idi-demak eta erakustaldiak, kantaldi eta antzerki emankizunak...

Gainera, ikastolaren kudeaketa gurasoek eta irakasleek elkarrekin egiten zuten; asteleheneko elkartzen ziren iluntzeko zazpitan Ikastolaren norabidea aztertzeko. Jakina, urteak aurrera egin ahala gauzak aldatu egin ziren, eta baita arazoak ere; aldaketak onerako izan ziren batzuetan, baina ez beti... Hala ere, irakasle talde honek irmo eutsi zion bere jokabideari, bere borondatea ikastolaren egitasmoari lotuz urte askoan. 50 urte bete berri dituen Egape ikastolak asko zor die irakasle aitzindari horiei



IÑISTORRA
BILTZARRA



guztiei, beraien ahalegina tartean ez balitz gaur ez baikenuke ezagutuko Urnietan Egape ikastola: Arantxa Etxeberria, Maria Pilar Sarasola, Ixidro Elortza, Marijose Etxeberria, Agurtzane Garmendia, Inma Izagirre, Maite Barandiaran, Garbiñe Izeta, Maite Urretabizkaia eta Antton Jauregi.

Orain bi urte, 2015.ean *Urnietar prestu* saria Justo Egañari eman zitzaion; Justori ere, neurri handi batean, ikastolaren sorrerako lehenengo urte haietan egin zuen lan bikainagatik, bere ere irakasle eta zuzendari aitzindaria izateagatik.

Beraz, laburtuz, honakoak dira *Urnietar Prestu 2017* saria erabaki duen epaimahaiak aintzakotzat izan dituen merezimenduak:

- ❖ Egape ikastolaren hasierako hamarkadetan, ikastolaren egitasmoari hezurdura eta mamia emateko ohiko lan-jardunaz kanpo egin zuten musutrukeko eta borondatezko lan bikainagatik eta ikastolaren geroari begira uneoro azaldu zuten kezka eta arduragatik.
- ❖ Euren ardurapean hezi ziren ikasleengan ikastolarekiko jarrera arretatsu hori beraxe kutsatu izanagatik, aditzera emanaz gure hizkuntzaren eta kulturaren geroa batez ere euren esku zegoela.
- ❖ Ikastolaren hasiera hartako urteetan finantzabidearen kudeaketa gurasoekin batera egin izanagatik, eskura zegoen dirubide oro jorratuz.
- ❖ Urnietako ikastolaren inguruko herri mugimendua suspertzen lagundu izanagatik, Euskal Herrian barrena hezurmamitzen ari zenarekin neurriz uztartuz.
- ❖ Alor pedagogikoan egin zuten ahalegin bikainagatik.

AURTEN URRIAREN BATEAN

Aurten Iñistor jaia urriaren 1ean ospatuko da Urnietan, igandearekin, eta, jakina denez, jai horren bazkalosteko bertso saioa amaiturik eskuratzen zaio *Urnietar Prestu* izendatuari sariaren bizkar-zapia eta ziurtagiria. Beraz, Egape Ikastolako irakasle aitzindariak urriaren 1en, arratsaldeko bostak aldera jasoko dute, Jakutegi plazako olanape handian.

Iñistor jaiari sarituekin batera Jakutegi plazako olanapean antolatzen den bazkarira joan nahi dutenek bazkarirako txartela eros dezakete (heldu zein haurrena) Kantoi eta Guria tabernetan eta San Juan plazako Bikain kafetegian. Dagoeneko salgai daude (25 eta 16 €).

2017, irailak 20.